

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 18a

648. zenbakia

ONDAREA / Udalak eta Tavexek ordainduko dituzte lanak, eta urtebete iraungo dute

2006ko hasieran ekingo diote Gabiria berritzeari

EDU MENDIBIL

Gabiria Dorrea berritzeko lanei 2006. urteko hasieran ekingo diete. Gogoratuko duzue, Udalak eta Tavexek Gabiria berritzeko hitzarmena sinatu zuten joan den apirilaren 22an. Berritze lanek urtebete inguru iraungo dute.

Amenabar enpresa ari da Gabiria Dorrea berritzeko proiektua lantzen eta lanak 2006. urtearen hasieran hasiko lirateke.

Udalak eta Tavexek apirilean sinatutako hitzarmenaren arabera, administrazioak berritze lanen %50 ordainduko du eta bes-

te erdia Tavex taldeak. Aurrekontua 1.500.000 euro ingurukoa izango da. Hasiera baten, berritze lanek urtebete inguru iraungo dute. Goitik beherako berritzea beharrezkoa izango da, barrutik nahiko hondatuta baitago.

XV. MENDEKOA

Edozein modutan, Bergarako Udalak jarraituko du Gabiria Dorrearen jabe izaten. Dorrea XV. mendekoa da, pizkunde estilokoa, eta monumentu kalifikatu izendapena dauka, Jaurlaritzako Kultur Sailak ematen duen goren.

Berritze lanen erdia ordaintzearen truke Tavexeko bulego-

ak Gabiria Dorrean kokatuko dira etorkizunean.

Gabiria Dorreak hiru solairu dauzka eta berrikuntzaren ondoren 900 m² inguru izango dira erabilgarriak. Udalak eta Tavexek adierazitakoaren arabera, kultur ekitaldiak antolatzeko erabili ahal izango da Dorrea.

Algodonera San Antonioko pabiloiak apirilean bota zituzten, hango lursailean etxebizitzak egin ahal izateko. Hala ere, bulegoen eraikinak han jarraitzen du. Tavex taldeko 25 lagun inguruk jarraitzen dute han lanean. Hain zuzen ere, langile horiek izango dira etorkizunean Gabiria Dorrean joango direnak.



Tavexeko bulegoak Gabiria Dorrean kokatuko dira etorkizunean.

E.M.



Emakumeen aurkako indarkeria aztergai

Zutiken eskutik, genero indarkeriaren aurkako legearen gaineko hitzaldia egin zuen Maria Antonia Carok martitzenean. Legea landu zuen batzordean parte hartu zuen Carok. Bere ustez, goizegi da legearen eragina baloratzeko. Aurten 54.594 salaketa egon direla gaineratu zuen, iaz baino gehiago. 40 lagun inguru izan ziren kultur etxeko hitzaldian.

LABUR

San Joxepe erretiratuen elkarteak Iratxera irteera iragarri du abenduaren 14rako

San Joxepe erretiratuen elkarteak Iratxera, Nafarroara joateko egun guztiko irteera iragarri du abenduaren 14rako. Urteko azken irteera izango da. Argibideak eta izenematea erretiratuen egoitzan, 943 76 30 09 telefono zenbakian.

Urtea amaitu bitartean bi odol ateratze: azaroaren 23an eta abenduaren 21ean

Bergarako Odol Emaleen Elkarteak aditzera eman duenez, hurrengo odol ateratzea azaroaren 23an egingo dute Seminarioan, 18:30ean hasita. Urtea amaitu bitartean beste odol ateratze bat egingo da, abenduaren 21ean hain zuzen ere. Odol emaleei parte hartzeko deia egin diete elkarteko arduradunek.

Datorren Abenduak 17an
Jostunen Eguna ospatuko dugu.
Afarria, musika, dantzalekua...
eta gizonetzko striptisa.

ERRESERBAK EGITEKO

DEITU 687 50 17 78 edo 943 76 18 61 telefonora.

KAFETEGIA: 5:30etan zabaltzen dugu

JATETXEA: Eguneko menua

Menu berezia

Karta

Despedidak

Kintadak

Lantegiko afariak

Senitarteko ospakizunak



Tel. 943 76 18 61 • San Juan auzoa • 20570 BERGARA

GIZARTEA/ Sexu estereotipoak apurtzea da ikastaroaren helburu nagusia; Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatu du ikastaroa


Etxeko ardurak trukatzeko ikastaroan 26 gizon eta emakume ari dira aurten

E.M.

Hamalau emakume eta 12 gizon ari dira etxeko ardurak trukatzeko ikastaroan. Ikastaroa urriaren 25ean hasi zen eta abenduaren hasieran amaituko da. Bien bitartean, emakumeek iturgintza, elektrizitatea eta brikolajea ikasiko dute; gizonezkoek, berriz, arropa lisatzen eta josten, eta zartagin eta lapiko artean aritzen.

Emakumeen taldea Martoko eskolan elkartzen da martitzen eta eguaztenetan, bi orduz. Asun Gamarra da irakaslea. Berak brikolajea eta elektrizitateko konutak erakutsiko ditu. "Beldurra kendu behar zaio horrelako lan-txoei. Oinarritzko gauzak landuko ditugu: zulagailua nola erabili, zirkuitu elektrikoak nola egin, tinbrea zela aldatu..."

Iruñe Gabilondo dugu ikasle-etako bat: "Beti etortzen da ondo horrelako gauzak ikastea, etxean ezustekoren bat sortzen denerako. Normalean aitak konpontzen



Hamabi gizon ari dira sukaldaritza ikastaroan, erretiratuen egoitzan.

ditu horrelakoak eta ea zerbait ikasten dugun..."

Gizonen taldea, berriz erretiratuen egoitzan ari da lanean, emakumeen ordutegi berdinarekin. Sukaldean harrapatu geni-

tuen martitzenean, Unai Magu-nazelaia irakaslearen esanetara. Joseba Sanchezek zera esan zigun: "Amak animatu ninduen ikastarora etortzeko eta bagoaz gauzak ikasten... Ondo dago".



Asun Gamarrarekin brikolajea eta elektrizitatea landuko dituzte emakumeek.



Aritzeta abesbatzak emanaldia egin zuen Beguesen, Bartzelonan

Aritzetakoak Bartzelonan izan ziren Domu Santuko zubian. Begues herrian harrera bikaina egin zieten Coral Montau taldekoek eta iluntzean kontzertua eskaini zuten. Bukaeran, *Maitia nun zira* eta *El Rossinyol* eskaini zituzten elkarrekin. Ondoren, oroigarriak trukatu zituzten, baita bi herrietako udal ordezkariak ere. Juanjo Arrieta zinegotzia Bartzelonan izan zen Aritzetakoekin.

LABUR

1934an, 1946an, 1944an, 1962an eta 1957an jaiotakoek ospakizunak azaroaren 26an

1934an jaiotakoek (1955eko kintoe) bazkaria egingo dute Sirimiri jatetxean azaroaren 26an. Izenematea Sirimirin, aurrez 12 euro ordainduz; 1946an jaiotakoek Tartufo jatetxean izango dute afaria. Izenematea 943 76 35 51 telefonoan; 1944an jaiotakoek ere afaria egingo dute, Azpeitxi jatetxean. Aurretik meza izango da Santa Marinaan, 19:00etan. Izenematea 943 76 13 61 (Mari Carmen Garitano) eta 943 76 23 70 (Sanchez) telefonoetan, azaroaren 21era arte; 1962an jaiotakoek Errekin afalduko dute. Izenematea Errekin, 10 euro aurreratuz; azkenik, 1957an jaiotakoek Torrekuan afalduko dute. Izenematea Intxortan, 10 euro aurreratuz.

Azaroaren 2an hainbat tokitan egindako pintadak salatu ditu Udaleko Gobernuak

Bergarako Udalak ohar bat bidali du joan den azaroaren 2an herriko hainbat tokitan egindako pintadak direla eta.

Hain zuzen ere, Gobernu Batzarrak pintadak publikoki salatzearabaki zuen joan den azaroaren 7ko bileran. Oharra martitzenean, azaroaren 15ean, bidali zuten BERRIGARATA.

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

Helbide berria

Urbite Pol. industrial, U1 sekzioa, 12 Pabilioia
Eroski hipermerkatu ondoan
48220 ABADINO
Tel.: 94 621 58 10
Faxa: 94 620 28 15

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75



Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

GIZARTEA/ Boluntario lanetan 20 bat lagun aritzen dira, egoiliarrei laguntzen

Hainbat ekitaldi datorren astean Mizpirualden

E.M.

Urteko sasoi honetan ohikoa denez, hainbat ekitaldiz osatutako jai egitaraua prestatu dute Mizpirualde egoitzan, azaroaren 21etik 26ra. Gaur egun 109 egoiliar daude egoitzan.

Egunotako hotza eta euriari aurre eginez, egoitzako giroa berotzea izaten da Mizpirualdeko Astearen helburua. Hainbat ekitaldi prestatu dituzte: Musika Eskolako

soka taldearen eta trikiti taldearen emanaldia, toka, igela eta karta txapelketak, diapositiba emanaldia, Moises Azpiazu dantza taldearen saioa, Alai Taldearena... Azaroaren 26ko bazkariarekin bukatuko da jai astea.

Orbaiz Formoso eibartarrak urtebete darama kultur animatzaile lanetan eta bera izan da jai egitaraua osatzeko ardura izan duena. Bestalde, farmazia zerbitzua abian jarri zuten martxoan. Amaia Mendizabal arduratzen da egoiliarren osasun kontrolaz.

20 LAGUN BOLUNTARIO LANETAN


Esan bezala, 109 egoiliar dira Mizpirualden (libre dauden 6 plazak autonomoei zuzendutakoak dira). 44 langilek dihardute egoitzan. Boluntario lanetan, berriz, 20 bat lagun ari dira: egoiliarrei konpainia egiten, mezetan laguntzen edo ekintzak antolatzen.

Bestalde, abenduan eraikin berriko bainugelak berritzen hasiko dira. Aurrekontua 242.000 eurokoa da.

2006an egoitzako tasek %3,5eko igoera izango dute.



Astelehenetik zapatara Mizpirualdeko egoiliarrendako ekitaldiak egongo dira.



Ana Irazabalek irabazi du Helduen Eskolako logotipo lehiaketa

Bergarako Helduen Eskolak logotipo lehiaketa deitu zuen ikastetxeko ikasleen artean. Dozena bat lan jaso zituzten eta Ana Irazabalek eskuratu du lehen saria. Miren Gurutze Arana zuzendariak eta Marian Padilla idazkariak eman zioten saria aurreko egunean. Ana Irazabalek Bedelkarreko dendatan erabiltzeko 150 euroko erosketa bonoa jaso du.

LABUR

1980an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute hurrengo zapatuan, hilaren 26an

1980an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 26an Agirrebeña jatetxean. Izenematea (25 euro) Euskadiko Kutzako 0090075779 kontuan egin daiteke, hilaren 22a baino lehen. Bazkari egunean San Martin plazan elkartuko dira, 12:00etan.

1987an jaiotako bergararrek bazkaria iragarri dute abenduaren 24rako


1987an jaiotako neskek eta mutilek bazkaria iragarri dute Gabonetarako, abenduaren 24rako.

Izenematea Matxiategi tabernan (Matxiategi 12) egin daiteke. Izena emateko epea hurrengo asteko eguenera arte (azaroak 24) dago zabalik.

Bizigune programan parte hartu nahi dutenek udaletxera jo dezakete eguaztenetan


Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko programa da Bizigune. Suradesak kudeatuko du Bizigune programa gurean. Hain zuzen ere eguazteneko Suradesako ordezkariak izango dira Bergarako udaletxean, 10:30etik 12:30era.

Argibide gehiago www.etxebide.info webgunean edo 900 251 251 telefonoan eskura ditzakezue.



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK: Matxiategi 3 • 943 76 12 22
SUKALDEKO ALTZARIAK: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



PILOTA/ BKEko pilota saila omendu zuten zapatuan

Reyes izan zen omenaldiko erregina

E.M.

Inolako protagonismorik nahi ez zuen arren, Reyes Azkoitia izan zen zapatuan pilota sailak jaso zuen omenaldiko protagonista nagusia. Oxirondo eta Pertxa elkarteek eta Udalak antolatutako omenaldia erabat arrakastatsua gertatu zen. Jende ugari elkartu zen zapatuan Udal Pilotalekuan, pilota saila aurrera ateratzeko lanean ari direnei esker ona azaltzeko. Harmailetan eta kantxan giro berezia izan zen.

Jaialdiaren hasieran *barru* jokoan aritu ziren pilota eskolako gaztetxoak. Eta argi geratu zen harribitxiak direla harrobian.

FAMILIA PILOTAZALEAK BAT EGIN

Gazte mailako partiduaren ondoren, omenaldia egin zioten pilota sailari: Udal Txistulari Ban-

daren laguntzarekin, pilota sailleko arduradun eta kolaboratzaileak kantxa atera ziren, eta gaztetxoek *pasilloa* egin zieten.

Besteak beste, Joxean Tolosa pilotari ohia; pilota sailan Reyesekin ibilitakoak (Joseba semea tartean); Udala, BKE, Kutxa, La Caixa, Erreki jatetxea, Reyesen aurka pilotan aritutako Txikito de Benegas arrasatearra eta beste hainbat lagunek hartu zuten parte omenaldian. Oxirondok eta Pertxak plaka bana eman zioten Reyesi.

Emozioari ia-ia eutsi ezinda zegoen Reyes. Joane bilobatoa eta ilobak ere gertuan izan zituen hain egun berezian. Esan bezala, familia pilotazale osoak bat egin zuen. Gauean, 50 bat lagun elkartu ziren Pertxan egindako afarian, egunari amaiera borobila emanez.



Pilota sailatik igarotako hainbat gazte eta omenaldian parte hartu zuten elkarte eta erakundeetako ordezkariak.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Reyes, Joane bilobarekin eta ilobekin.




MIGURA

Joxean Tolosak lora sorta eman zion.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Ehun gaztetxo inguru ari dira pilota eskolan. Ederki asko moldatzen da Reyes txikiekin. 15 urte darama lan horretan.



Jon Gantxegi, gazte mailako Gipuzkoako karate txapelduna

Jon Gantxegi bergararra hirugarren aldiz izan da Gipuzkoako karate txapelduna. Gazte mailan, 80 kilotik azpikoetan irabazi zuen Jonek, aurreko asteburuan, Aretxabaletan. Zutik daudenen artean, eskumatik hasita bigarrena da Jon Gantxegi. 16 urte dauzka Jonek eta Giartzu gimnasioa Luis Muñoz du entrenatzaile. Sasoi betean hasi dute denboraldia.

LABUR

Lehen mailako gazteak eta ohorezko kadete mailako taldeen futbol partiduak Ipintzan

Ohorezko kadete mailako Bergarako futbol taldeak Donostiako San Ignacio hartuko du bihar, zapatua, Ipintzan, 11:30ean.

Arratsaldean, lehen mailako gazteen taldeak Oiartzunen aurka jokatu du, 16:30ean.

Dirulaguntza eskaera urtea amaitu baino lehen egin beharko dute kirol elkarteek

Udal Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, kirol elkarteek abenduaren 31ra arte daukate 2005eko dirulaguntzen 2.zatia jaso ahal izateko agiriak entregatzeko epea. Era berean, 2006rako dirulaguntzen eskaera urtea amaitu baino lehen egin beharko dute. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

Bigarren eskuko eski eta mendi materialaren azoka txikia egingo dute Pol-Polen

Eski eta mendi materialaren azoka txikia egingo dute Pol-Polen azaroaren 28tik abenduaren 3ra.

Interesatuak Pol-Polera (Komenio kalea, 4) eraman beharko dute materiala hilaren 24a baino lehen, astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30era. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

ELKARRIZKETA

IGNACIO OREGI / BERGARA, LAS PALMAS ETA MURTZIA FUTBOL TALDEETAKO ATEZAIN OHIA

“Bergarako taldean emandako urteetatik oroitzapen onak besterik ez daukat”

EDU MENDIBIL

S an Juango Lizarralde baserrikoa sortzez, Bergara futbol taldeko atezaina izan zen Ignacio Oregi (87 urte). Bergarekin 3. mailarako igoera lortu ondoren, lehen mailan jokatu zuen, Las Palmas eta Murtzia taldeetan. Kanarietan bizi da gaur egun; jaioterrian bisitan egon berri da.

Zelan hasi zinen futbolean jokatzen?

Eskolan, Elementalean hasi ginen, Madinabeitiarekin. Jendea behar zutela taldea osatzeko, eta halaxe hasi nintzen, atezain. Ondoren, Andres Altzelaik deitu zidan Bergarako taldearekin entrenatzen hasteko.

Sasoi ona egokitu zitzaizun Bergaran, ala?

Oroitzapen onak besterik ez daukat. Taldekideok ederto pasatzen genuen elkarrekin. Orduko giro hura ez nuke ezergatik aldatuko. Nirekin futbolean ibilitakoak agurtu nahi ditut hemendik. Benetako koadrila bat ginen. Orduan futbola, zinema eta Espoiloiko dantzaldia izaten ziren domeketan. Eta Agorrosinen giro aparta izaten zen.

Bergaran ibili eta gero, lehen mailan jokatzeak aukera izan zenuen...

Soldadutza egitera Las Palmasera joan... eta hantxe jarraitzen dut. Soldadutzan, kuarteleko taldearekin jokatzen nuen, lehen erregionalean, eta hainbat taldek (Tenerife, Reala bera eta El Ferrol tartean) eskaintza egin zidaten. Azkenean Las Palmasekin probatzea erabaki nuen eta hamar bat urte egin nituen. Talde xumea zen Las Palmas, baina ondo egiten zen lan eta urte baten ligako txapeladunorde izan ginen, Real Madrilen atzetik. UEFArako sailkatu ginen behin baino gehiagotan... Beste urteren baten ere larri ibili ginen mailari eusteko, baina


orokorrean oso urte onak izan ziren haiek... Besteak beste, Otxoa, Sinibaldi, Rial eta Luis Molowny izan nituen entrenatzaile. Atezain posturako Ulazia debarra eta biok ibiltzen ginen lehian. Ondoren, beste urtebete egin nuen Murtziarekin, lehenengo mailan, eta erretiratu egin nintzen.

Zer-nolako atezaina zinen?

Kosta egiten zait neure burua definitzea. Baina talde xume baten horrenbeste urte egitea ez da txantxa... Ez dakit eskuz pilotan aritzeagatik den, baina Euskal Herrian beti egon dira atezain onak. Gaur ez dut Iribar, Arkonada edo Zubizarretaren parekorik ikusten.

Kanariar azentua daukazu dagoeneko...

Urte asko dira hemen igarotakoak... Futbolean irabazitako apurrarekin negozio bat edo beste jarri eta ondo bizi izan naiz hemen... Hiru seme-alaba eta bost biloba dauzkagu. Orain erretiraturuta nago... Eta Bergarako jendearekin askotan akordatzen naiz. Saiatzen naiz urtero joaten.



E.M.

Bergara hirugarren mailara lehen aldiz igo zeneko eguna

Bergara 1958an igo zen lehen aldiz hirugarren mailara. Urtarrilaren 19an Lasarte-Mitxelín taldearen aurkako partidua erabakigarria jokatu zuten mahoneroek, Donostiako Atotxa futbol zelaian. Bergarak 4-1 irabazi zuen. Sanzek (2), Agirrek eta Lintzoainen sartu zituzten golak.

Argazkian, egun hartako protagonista nagusiak. Goian, ezkerretik hasita: Ignacio Oregi, Luis Mari Egaña, Andres Altzelai entrenatzailea, Joseba Linazisoro, Angel Lintzoain, Jose Luis Sanz, Javier Rementería eta Ovidio. Makurtuta: Pako Agirre, Alberto Zurro, Anastasio Misol, Juan Egaña II.a eta Javier Muruamendiarrak Shapa. Taldeari harrera egin zioten Udaletxean eta ehunka lagun elkartu ziren San Martin plazan, txapeladunei ongietorria egiteko.



BKE ARTXIBOA

1958ko urtarrilaren 19an Mitxelín taldeari Atotxan irabazi zion Bergarako taldea, partiduaren ostean.



SEAT ALTEA BERRIA

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxes: 943 76 47 51

Km 0
kostu prezioan



•Toledo •Cordoba •Ibiza •Altea

Seat IBIZA 1.4 75 cv
2 Airbag. ABS
Llankak
Klimatizadorea
Irrati-kasetea

10.500 €

Toledo TDi 110 Sport
ABS, ESP, 4 Airbag
Klimatizadorea, Llankak
Pintura metalizatua
Jarriku deportiboak

17.400 € (PREVER PLANA BARNE)



MUSIKA/ Udal Musika Bandaren kontzertua domekan Udal Pilotalekuan, 12:30ean

Santa Zeziliaren omenezko ospakizuna egingo du Bandak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Azaroaren 22an Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna da. Haren omenez, Udal Musika Bandak ospakizuna egingo du domekan, azaroaren 20an. Besteak beste, Jose Ramon Lazkanori omenaldia egingo diote, aurten 50 urte beteko direlako Udal Musika Bandan hasi zenetik.

Goizean meza izango dute Santa Zeziliaren omenez, 09:30ean, San Pedro elizan. Ondoren, 10:30ean kalejira egingo dute Bandakoek herriko kaleetan.

Kontzertu nagusia 12:30ean izango da Udal Pilotalekuan. Alfredo Gonzalez Chirlaque Bandako zuzendariak esan digunez, "kontzertu berezia izango da domekako. Bandan 50 urte egin dituen Jose Ramon Lazkano omenduko dugu, eta haren arabera gertatu dugu programa. Gure asmoa da bere hasierako garaietatik gaur arterainoko piezak jasotzea; klasikoetatik modernoetarako ibilbidea egingo dugu".

Bost pieza izango dira kontzertuan Bandak joko dituenak: *Campo de rosas* Migel Gonzalez Bastidaren pasodoblea; *Egmont* Bethovenen obertura; Faure konposatzailearen *Pavane*; Sorozabalen *Katiuska* zarzuelako aukeraketa; eta Roosten *Volcano* poema sinfonikoa.



Lehenago eta oraingo bost pieza joko ditu Bandak Udal Pilotalekuan.

OMENALDIA ETA AGURRA

Kontzertu ostean, Jose Ramon Lazkanori omenaldia egingo diote Bandako kideek eta Udalak. "Ez da oso ohikoa horrenbeste urtean talde berean jardutea eta merezitako omenaldia izango da", esan digu zuzendariak.

Bazkaria egingo dute gero Bandako musikari guztiek Zumelaga jatetxean. Bazkalostean, agur berezia egingo diete

Bandako lagunek aurten taldea utziko duten hiru kideri: Arrate Etxanizi, Ane Igartuari eta Leire Iruini, hain zuzen ere.

Bestalde, martitzenean, azaroaren 22an, Musika Eskolako bandak kalejira egingo du herriko kaleetan Santa Zeziliaren omenez. Ondoren, 17:45ean Musika Eskolako ikasleendako txokolate jana egongo da eskolan bertan.

Jose Ramon Lazkano: 50 urte Bandan

Orain dela 50 urte hasi zen Udal Musika Bandan eta ordutik hona ezagutzen ditugun saxofoi mota guztiak jo ditu: sopranoa, altua, tenorea eta baritonoa.

Urte hauetan guztietan ez omen du aldaketa handirik sumatu Lazkanok Bandan, jendea besterik ez. "Orain, Musika Eskolatik jende asko etortzen da Bandara eta garai batean baino musikari gehiago gara", esan digu.

Santa Zezilia eguna urtero bezala ospatuko duela ere esan digu Lazkanok: "Hala ere, aurtengoa zertxobait bereziagoa izango da".

50 urte igaro eta gero ez dauka Banda eta musika lagatzeko asmorik, eta ahal duen artean jarraituko du. Bere bidea jarraituko duenik ere bada familiar: "Semea musikaria da eta biloba ere hasi da musika ikasten".



Saxofoia jotzen du Lazkanok.

Amodiozko gutunak bidaltzeko epea urtarrilaren 5era arte

I.A.

Jardun Elkarrekin Amodiozko Gutunen Lehiaketa ipini du abian, aurten hamalagarren aldiz. Urtarrilaren 5era arteko epea dago gutunak bidaltzeko. SMS bidezko amodiozko mezuak ere bidal daitezke.

Abian da jadanik Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa; eta urtarrilaren 5era bitartean bidali ahal izango dira gutunak honako helbidera: Jardun Elkarrekin; Errotalde jauregia, z/g; 20570 Bergara.

Lehiaketan 1991n edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte. Aurkeztutako lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabek izan beharko dute; eta hiru kopia bidali beharko dira, lelo batez sinatuta. Beste gutun-azal batean, egilearen datuak ipiniko dituzte idazleek.

Hamalagarren edizioa da aurtengoa eta urte hauetan guztietan partaide asko izan dira.

1.915 gutun jaso dituzte; horietatik 72 iaz. Horietatik gehienak emakumeek idatzitakoak izan ziren, %64 hain zuzen ere.

Lehiaketako sariak ez dira nolana hikoak: 450 euro jasoko ditu irabazleak eta bigarrenak 240 euro. Bergarako onenarendako 150 euroko saria dago eta 100 eurokoa 26 urtetik beherako onenarendako. Sari nagusiak bergarar batek edo 26 urtetik beherako norbaitek irabaziko balitu, talde horietako hurrengo sailkatuek jasoko lituzkete sariak.

Aurtengo epaimahaia Julen Gabiriak, Yolanda Arrietak, Alex Sarduik eta Alaitz Sarasolak, iazko irabazleak, osatuko dute.

SMS MEZUAK

Bestalde, aurten laugarren aldiz egingo dute aurten SMS bidezko amodiozko mezuen lehiaketa. Mezuak bidaltzeko epea, ordea, urtarrilaren 1etik 15era bitarte izango da. 605 71 24 69 telefono zenbakira bidali beharko dira mezuak.

LABUR

Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak salgai Elkar liburudendan eta Jardunen

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala abenduaren 18an jokatu da Bilbao Exhibition Center (BEC) erakustazokan. Finalerako sarrerak salgai daude Bergaran 25 eurotan Elkar liburudendan eta Jardunen. BECen bazkaltzeko eta finalerako autobuserako txartelak ere Jardunen eskura daitezke.

Hardcore-punk doinuak gaur gauean Jam aretoan hiru musika talderen eskutik

Gaur, egubakoitza, hardcore-punk kontzertua eskainiko du Jam aretoan The Exploited Eskoziako taldeak. Harekin jardungo dute Dritte Wahl eta Toxoplasma talde alemaniarrek ere. Kontzertua 22:00etan da. Bestalde, Jardunek antolatuta Bat gehio taldearen kontzertua izango da azaroaren 24an 19:30ean Go-Jam aretoan.

Eguenetako perkusio ikastarorako izenematea zabalik, eta kontzertua zapatuan gaztetxean

Perkusio ikastaroa antolatu dute eguenerako gaztetxean. Saiotak 18:00etatik 20:00etara izango dira Gabonak bitartean. Izena emateko gaztetxera bertara jo behar dute interesatuek. Bestalde, bihar, zapatua, kontzertua izango da, 22:30ean, gaztetxean. Triskantza, Dzart eta Puñalada taldeek jardungo dute.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

KONDE

PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA




margolan
m a r g o a k

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ margo industrial
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ erreformak orokorrean

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

MINGAINARITIRAKA



Jabi
Azkarate

AZKARATE AROZTEGIKOAK

Arotz familiakoa da Jabi; aita eta aitona arotzak ziren, eta Jabik ere bide horri eustea erabaki zuen soldadutzatik itzuli zenean. Bergararra den arren, aspaldiko urteetan Aretxabaletan bizi da, emaztearekin eta bi semeekin.

Zelako egurra, halako ezpala, dio esaera zaharrak; zuen aita arotza zen eta haren bideari jarraitu diozu.

Aita bakarrik ez, aitona ere arotza zen. Enpresa ikasketak bukatzeko ikasgai bat bakarrik geratzen zitzaidan soldadutza egitera joan nintzanean. Itzuleran, ez neukan ikasten jarraitzeko gogo handirik eta aitarekin lanean hasi nintzen.

Zure lanean, zer gustatzen zaizu gehien?

Ez dela monotonia, egunero gauza ezberdinak egiten ditugu.

Eta gutxien?

Lanez lepo gabiltzanean, iritsi ezinda, bezeroei itxaronaraztea.

Aldatzekotan, zertan lan egin nahiko zenuke?

Gaur egun, ez nuke aldatuko.

Bizkai aldean zabaldu duten altzari denda handi horrek kalterik eragin dizue?

Nik ez dut uste guregan eraginik izan duenik.

Etxean altzari dotoreak izango dituzu, ezta?

Neuk egindakoak dira. Dena dela, badakizu, esaera zaharrak dioten moduan, *Errementariaren etxean zotza burrunzti*.

Aspaldiko urteetan Aretxabaletan bizi zara; errepidean pazientzia handia beharko duzu, ezta?

Bai; dena dela, ni ibiltzen naizen orduetan ez da trafiko handirik egoten. Bergaratik Arrasate aldera egoten da handiagoa.

Tranbia egiten dutenean, erabiliko duzu?

Labegarietan geltokia jartzen badute, bai.

Aretxabaletake eta Bergarako gauza onenak?

Bergarako kaleko giroa Aretxabaletakea baino hobea da;

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Egoeta, paseatzea, Larrino aldera bueltatxo bat ematera joatea...

Asteburu ideal baterako plana?

Egubakoitzean, afaria; zapatu goizean, Bergaran txikito batzuk hartu eta arratsaldean Gasteizera joango nintzateke, bueltatxo bat eman eta zinemara. Domeka goizean, Urkulun paseatu eta arratsaldean etxean lasai egon.

Bukatzeko, amets bat?

Euskal Herriak Euskal Herri moduan izateko aukera edukitzea.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAK MUNDUAN

ELENA FRANCO

33 URTE / SIMA ENPRESAKO KOMERTZIALA / GRANADAN BIZI DA

“Hondartza, mendi eta elurrarekin gozatzeko aukera dugu; pribilegiatuak gara Granadan”

EDU MENDIBIL

Sei urte daramatza Granadan Elena Francok. Hara joan aurretik Maycen zebilen lanean. Sasoi hartan Rafa izeneko granadarra ezagutu zuen: “Hark enpresa familiarren ardura zuen, eta, egotera hartan, logikoagoa zen nik aldatzea lanez. Familia eta lagunak Bergaran uztea ez zen gauza erraza izan”. 1999an alde egin zuen Granadara, 2000. urtean Arantzazun ezkondu ziren eta gustura bizi dira Granadan gaur.

Gustuko du Granada Elenak: “Hiria izan arren, ez da horren handia. Berehala heltzen zara edozein tokitara. Oso hiri ederra da eta giro bikaina dago, gainera. Sierra Nevada bertan daukagu, kostaldea ere bai, Alpujarra ikusgarria... eta, nola ez, Alhambra ospetsua. Pribilegiatuak gara: hondartza, mendi eta elurrarekin gozatzeko aukera dugu. Ezin naiz hemengo bizimoduaz kezatu. Toki bakoitzeko bizimodura egokitzea besterik ez da behar ondo bizitzeko. Eta ez da horren zaila. Hasieran, ez nuen inor ezagutzen, baina poliki-poliki jendea ezagutzen joan naiz eta babestuta eta maitatua sentitzen naiz”.

Granada hiritik zortzi bat kilometrora bizi dira Rafa eta Elena. “Nahiago dugu hiritik urrun egon, hango zarata eta trafikoa saihesteko. Lorategia daukagu etxean eta jaikitzerakoan txorien kantua entzutea gauza ederra da. Lanetik itzultzean erlaxatzeko toki aproposa da, zalantzarik gabe”. Etxezulokak direla esaten digu Elenak: “Negu partean batez ere etxean egotekoak gara: lagun artean barbakoak egin, filmen bat ikusi, berrikeria egin... Mendira ere ateratzen gara, txakurrarekin paseatzera. Uda eta eguraldi onarekin bai, orduan gehiagotan irteten gara. Baina orduan hobe gau partean irtetea, egunez egiten duen beroa jasanezina delako... Eta zubiak-eta suertatzen direnean lagunekin joaten

“Poliki-poliki jendea ezagutz joan naiz; babestuta eta maitatua sentitzen naiz”

gara nekazari etxeren batera. Granadan *casa-cueva* deiturikoak oso tipikoak dira”.

JENDE IREKIA

Jendea asko ateratzen omen da Granadan. Eguraldiak horretan zerikusia duela dio Elenak: “Euskal Herrian mahai baten bueltan egiten dira ospakizun guztiak eta hemen, berriz, garagardo eta *tapa* batzuk hartzeko ohitura daukate. Oso ohikoa da lagunekin gertzea *tapa* batzuk hartzera joateko. Bestalde, andaluziarrak oso

alaiak dira. Txantxetan ibiltzen dira gehienetan, *katxondeoa* izugarri gustatzen zaie”.

Ingeles Filologia ikasketak egin zituen Elenak Gasteizen. Ondoren, Marketin Europarra eta Hizkuntzen Gaineko Masterra ere egin zuen Eskozian, Edinburgon. Granadara joandakoan, ingeles akademia batean ibili zen lanean, baina duela bost urtetik hona eraikuntzarako makineria egiten duen enpresa baten ari da, sail komertzialean.

Bergaran azken aldiz irailean egon zen, ahizparen ezkontzan. Gabonetan ere etorriko dira: “Lagunekin ere harremanetan egoten saiatzen naiz. Distantzia handia da, 800 kilometro, eta aste bukaera pasatzera joatea ezinezkoa da. Nire familia urtero etortzen da Aste Santuan, eta gustura egoten dira hemen, gustatzen zaie Granada. Edozein modutan, oporretan zabiltzanean begi onez ikusten duzu dena...”.



KABIA
ERRETEGIA

Orain astelehenetik larunbatera zabalik

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitarkekoak
- Asteburuetan bazkariak eta afariak

Zubiaurre 23 Tel.: 943 76 23 08

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

EDEL
TAPIZ DENDA


Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.


Bidekurutzeta 14 BERGARA

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Non daude
bi ate dotore
horiek?



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MAIALEN LETURIA aredako izan da 30 euroko erosketa-txartela.
Zorionak, Maialen!
Galderaren erantzun zuzena: **Etxeluzea.**



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Valdepeñas erreserbako ardo beltza

Viña Albadi, 75 cl-ko botila

2,85 €

474 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Karta joko txapelketako azken saioa

Argazki hau orain dela 30 urte inguru ateratakoa da. Garai hartan Ozkarbi elkarteak Salvador kalean zegoen, gaur egun Haizea taberna dagoen lekuan, eta karta joko saio asko izaten zen hantxe, baita txapelketaren bat edo beste ere.

Aldi hartan, Jabier Arantzetak eta Jose Inazio Erostarbek osatutako bikotea izan zen onena karta jokoan. Hona hemen bikotea, finalistekin batera.

Beheko ilaran, makurtuta: Gotzon Elkoro, Jabier Arantzetak eta Jose Inazio Erostarbe.

Goiko ilaran, zutik: Jose Luis Gorosabel, Fermin Iribar, Jose Arrizabalaga, Bittor Agirreazaldegia eta Gabino Abasolo.

Argazkia: Benedicta Gallastegi



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIEN TXANDA

- EGUBAKOITZA, 18**
ZABALA, Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- ZAPATUA, 19**
GUALLAR, San Antonio 5 . 943 76 11 05
- DOMEKA, 20**
GUALLAR, San Antonio 5 . 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 21**
ESTELLA, Matxiategi 5 . . 943 76 19 63
- MARTITZENA, 22**
MOZOS, Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 23**
CAMACHO, Oxirondo 4 . . 943 76 11 74
- EGUENA, 24**
ZABALA, Barrenkalea 25. . 943 76 16 87

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa . 943 76 62 46
 - Ertzaintza 943 53 47 20
 - Osasun etxea 943 76 24 40
 - Asepeyo 943 76 16 43
 - Pakea 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua 943 76 62 23
 - Odol emaleak 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

GARRIAOK

- Taxiak 943 76 19 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea . . . 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiko okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIA EZPADA/ Partekatzen dituzue etxeko lanak zuenean?



ANA ALTOLAGIRRE



ANTXONI TXURRUKA




JOSEFA ORTIZ



EMILIANO GARTZIA



IGNACIO CASTELS



ANDRES BALENTZIAGA

Gutxitan. Gizona noizean behin arduratzen da, baina gehienetan nik egiten ditut etxeko lanak. Etxean egiten dut lan, eta azken finean hori da nire eginbeharra: etxea ahalik eta ondoen izatea.

Ni bakarrik bizi naiz, beraz, ez daukat lanak inorekin partekatu beharrik, nik neuk egin behar izaten ditut lan guztiak. Egin behar guztien artean lanik handien ematen didana nire ohea egitea izaten da.

Bai, alabek laguntzen didate etxeko lanetan, etxeko lanak egiteaz gain kanporean ere lan egiten dut-eta. Hala ere, lanik gehienak nire kargu uzten dituzte eta okerrena da denboraz larri ibiltzen naizela.

Bakarrik bizi naiz, beraz, ez daukat lanak inorekin partekatzerik. Nik egin beste erremediorik ez zait geratzen. Etxeko lan guztietan ongi moldatzen naiz, baina arropak lisatzea ez dut askorik atsegin.

Bai, partekatzen ditugu. Nik denetariko lanak egiten ditut: garbigailua jarri, arropak lisatu, aspiragailua pasatu... Txarrena da etxeko lanak egiteko aisialdiko denborari tarte bat kendu behar zaiola.

Nik neuk lan txikia egiten dut etxean. Gurasoekin bizi naiz eta ama arduratzen da etxeko lanak egiteaz. Nik zerbait egitekotan sukaldean jarduten dut; eta gaitz nontzean, nire ohea baino ez dut egiten.


TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SAN ANTONION ZUHAITZAK BOTA Irakurle batek baino gehiagok deitu edo idatzi digu aste honetan. San Antonion bota berri dituzten zuhaitzengatik kexu dira. Zuhaitzak botatzekoa beharrezkoa ote zen galdetzen dute. Era berean, horrelakoetan herritarrak garaiz informatzea ondo legokeela diote. /E.M.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Papelada”



—Badatoz Gabonak eta urteroko papeladak eñ biakoittugu.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“Enpresa mundua euskalduntzeko lan handia dago egiteko. Orain dela 15 urte jarri zen abian euskara bultzatzeko lehen erabilera plana, Antzuolan, Elay enpresan, eta harrezkero, 120 enpresak baino gehiagok eman du urrats hori. Erakunde publikoek lehen baino dirulaguntza handiagoak eskaintzen dituzte, baina ez da nahikoa, inplikazio handiagoa behar da. Enpresetan euskara bultzatzeko arrazoi asko daude: zerbitzuaren kalitatea, bezeroen gogobetetzea, langileena, gizarte erantzukizuna, esaterako. Zoritzarrez, oraindik ez dago behar adinako kontzientziarik arlo sozioekonomikoan euskara bultzatzeko duen garrantziari buruz”.
AGURTZANE LOIDI / Eihuyar Aholkularitzako koordinatzaile nagusia 'Berria' / 05-11-15

HAUGIROA!

MINIMOA **2°C**
Egubakoitza, 11

MAXIMOA **17°C**
Egubakoitza, 11

ASTEKO EURIA (l/m²) **99,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	12°C	7°C	33,1 l/m ²
Eguena, 10	13°C	6°C	— l/m ²
Egubakoitza, 11	17°C	2°C	— l/m ²
Zapatua, 12	10°C	4°C	25,7 l/m ²
Domeka, 13	9°C	7°C	12,8 l/m ²
Astelehena, 14	12°C	7°C	3,9 l/m ²
Martitzena, 15	12°C	8°C	24,4 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEKIDŨOE/ Maite Aristegi



Hiltegiririk ere ez?

Zerbaiten eskasiaren aurrean jendeak duen irudimenaz idaztera nindotan (edo nola biztanleak agintarien aurretik doazen).

Zeren, konturatu zarete San Martzialerako bidean, saihesbide azpian, zenbatek uzten duen autoa denboralditxo batean, garaia balitz bezala? Eta ia Txararainoko aparkalekua, bazterretako zangetan sartuta, norberarentzako eta ingurukoentzako arrisku ederra sortuz?

Baina hau entzun diot artzain bati: “Durangoko hiltegia ixtea eta Bilbokoa

privatizatzea oso kaltegarria da artzainontzat”. Eta zer pentsatua eman dit. Baserritarren aspaldiko kezka prezio duinetan saltzea da, eta jakinekua da gure generoa, joan den mendeko preziotan ia erregalatzera behartuta gaudela; hori bai, eurotan.

“Gu oso ondo konpondu izan gara inguruko harakinei salduta. Durangon hiltzen zuten eta gero saldu”, jarraitzen du artzainak.

Baita gu ere, Oñatin hilda. Eta inguruko biztanleak ere bai,

bertan hazitako ganadua, bertan hil, banatu eta janda. Kalitatezko kontsumoa bermatzeko zati handi bat, gertutasunak ematen du, produkzio-salmenta kate motza izateak.

Denboralditxoa da Oñatiko hiltegiak itxieraren ezpata gainean duela. Eta hainbeste gorabeheren ondoren, bizirik eusteko plan-

gintza egin dadin Udaletan sartutako mozioen erantzuna ikusita (Bergara eta Arrasateko alkateek ez dute tratatu nahi izan), Mankomunitateak gaia bertan behera utzi eta privatizatzea letorke. Bi

urtetan ixteaz gain, Gobernuaren begiko Gurokelak laguntza guztiak jasotzen dituela ikusita, hiltegiaren heriotza segurua.

Baserriaren egoera eta kontsumitzaileok jaten dugunaz ditugun kezka ikusita ez ote du merezi gai honi lehentasuna ematea? Publikotasuna mantentzea eta era mankomunitatean eroatea, hainbeste eskatzea ote da? Ganaduzaleak desagertuta ez dago gero irudimenik ordezkaturiko dituenik!

“Kalitatezko kontsumoa bermatzeko zati bat produkzio-salmenta kate motza izateak ematen du”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldeg
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Kommunikazio Zehitzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 18a / 264. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

'Eman eta gero' izeneko txotxongilo lana bihar, zapatua, umeendako

USOA AGIRRE

Enkarni Genuaren txotxongilo taldea arituko da bihar, zapatua, 18:30ean Oларan etxean. *Eman eta gero* izeneko lana eskainiko dute. Obra horrek solidaritatea aldarrikatzen du. 3 eta 10 urte bitarteko umei zuzendutako ikuskizuna da.

Hogeita hamar urte baino gehiago daramatza Enkarni Genuak herriz herri, antzokiz antzoki, txoko guztietako haurrak bere txotxongiloekin liluratzen. Hogeitik gora obra eta hogeita hamar bat liburu eta disko dauzka Donostiako emakume titiritero honek. Bereak dira, adibidez, haur eta gazte literaturako *Erreka Mari*, *Altxor bat patrikan*, *Ipurtargi: azken eta putz xagutxoak* eta *Kuku ku-ku aitonaeren erlojua* kontakizunak. Argitaratu dituen kontakizun horietako asko txotxongilo emanaldietan ikusi ahal izan ditugu gero eta batzuk herrikoi ere bihurtu dira, *Erreka Mari*rena, adibidez.

Senarrarekin herrialde askotako antzokiak bisitatu ditu, besteak beste, Alemanian, Mexikon eta Kuban ospatutako hainbat txotxongilo jaialditan izan dira biak eta bihar, zapatua, Antzuolan izango dugu emanaldiaz gozatzeko aukera.



BERRIGARA

Eman eta gero izeneko liburuan oinarrituta dago txotxongilo ikuskizuna.

Besteak beste, 'Erreka Mari' ezaguna sortu zuen Enkarni Genuak

Marikris neskatoak ikusiko du dena dela posible elkarri lagunduta

SOLIDARITATEA

Enkarni Genuaren taldeak Antzuolan eskainiko duen lanak solidaritatea aldarrikatzen du. Mahai baten gainean diharduten txotxongiloekin, argi beltzeko efektuekin, diapositibekin, kutxa eta beste ezusteko batzuekin umeek eta ez hain umeek dituzten hainbat kezka mintzo da lana: Egia da Lurra guztion etxea dela? Mundua hobeto ibiliko litzateke denok bultza egingo bagenu? Norbera aberasteko bidea da ematea? Kezka horien erantzunak ematen saiatzen da obra.

Marikris Marikriseilu neska da ikuskizuneko protagonista. Marikris laguntasunaren garrantziaz ohartzen joango da pixkanaka, Txorizorrotz txoritxoaren laguntzarekin. Galdera horien eta beste batzuen erantzuna aurkituko du eta ikusiko du dena dela posible elkarri lagunduz.

LIBURUAN OINARRITUTA

Eman eta gero liburuan oinarritutako txotxongilo emanaldia da zapatukoa. 1997an argitaratu zuen Enkarni Genuak liburu eta Marikris Marikriseiluren nondik norakoak kontatzen ditu 64 orrialdetan.

Berrogei bat minutuko iraupena izango du ikuskizunak eta 3 eta 10 urte bitarteko umei zuzenduta dago. Euskaraz izango da.

LABUR

Film emanaldiak gaur eta domekan Oларanen

Gaur, egubakoitza, *El jardín de la alegría* filma emango dute 21:30ean, Oларanen. Drogen menpekotasunaren prebentzioa helburu duen kanpainaren barruan antolatu dute emanaldia. Filmaren ondoren pelikularen gaineko mahaingurua egongo da. 16 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago.

Domekan, berriz, gazte-txoendako *Prop eta Berta* filma emango dute 16:30ean, Oларanen.

Hitzaldia eta gaztaina erre jana erretiratuentzat

Datorren martitzenerako, hilak 22, hitzaldia eta gaztaina erre jana antolatu du herriko erretiratuaren elkarteak. Arratsaldeko 17:30ean izango da hitzaldia Oларan etxeko aretoan, barreak osasunerako zein abantaila dituen azalduko dute Tolosako elkarte bateko kideek.

Hitzaldiaren ondoren urtero antolatzen duten gaztaina erre jana egingo dute 19:00etan, parrokiako lokalak. Herriko erretiratu guztiak daude gonbidatuta bilerakintzetan parte hartzera.

Abenduan hasiko dituzte Ibarreko urbanizazio lanak

Azaroko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzarrak Ibarre auzoa urbanizatzeko lanak Construcciones Pera enpresari esleitzea. Esleipena eginganda, abenduan hasiko dira urbanizazio lanekin.

Auzoari espazioa ematea da lanon helburua. Batetik, aparkalekuak egingo dituzte; 24 autorentako tokia egongo da. Auzotarrak egoteko espazio librea ere egingo dute; umeendako jolasak jarriko dituzte eta zona berde txiki bat ere izango du auzoak.

ANTZUOLA IKERKETA BEKA

Abendurako kalean Kristina Pavoren toponimia liburu

U.A.

Antzuola Ikerketa Beka jaso zuen Kristina Pavok 2003ko azaroan Antzuolako toponimia jasotzeko. Urtebeteko lanaren ondoren, maiatzean eman zuen egindakoaren berri eta laster liburu modura ikusteko aukera izango dugu Kristinak egindako ikerketa lana.

Lehenago aurkeztekoa zen Kristina Pavoren liburu, baina egokitze eta txukuntze lanek atzeratu egin dute eguna. Dagoeneko inprentan da liburu eta abendurako izango dugu esku artean.

Liburuarekin batera Antzuolako mapa berria kaleratuko da, duela urte batzuk Inigo Ramirez de Okarizek kaleratu zuen mapa berri eta hobetu egin dute.

Mapan baserri eta leku izenak eguneratuta agertuko dira.

EUSKALTZAINDIAREN LAGUNTZA

Antzuolako leku-izenak batzea, aztertzea eta arautzea izan dira lanaren helburu nagusiak. Herri-tarren ondare historikoa gorde eta aberastu ere egiten du lanak. Euskaltzaindia izan da lanaren zuzendaria eta aholkularia.



Kristina Pavo.

HERRIKO PILOTA TXAPELKETA

Herriko Pilota Txapelketako beste lau partidu bihar, zapatua, pilotalekuan

U.A.

Joan den zapatuan hasi zuten pilota txapelketa zortzi bikotek. Hamahiru bikotek eman dute izena aurten eta gainontzeko bikoteek bihar ekingo diote txapelketari. Datozen zapatuetan ligaxka jokatu da eta hortik irtingo dira finalerdietarako bikoteak.

Olalde elkarteak aurten bederatzigarren aldiz antolatu du pilota txapelketa. Beste urte batzutan bi mailatan banatu dituzte pilotariak, baina aurten maila bakarrean jokatu dute guztiek. Hiru talde egin dituzte hamahiru bikoteekin eta ligaxka erara jokatu dute lehenengo fasea. Ligaxka horretan tanto gehien egiten dituzten lau bikoteek jokatu dituzte finalerdiak abenduaren 17an. Finala, berriz, abenduaren 23an izango da.

ZAPATUKO EMAITZAK

Herriko pilotariak gogotsu ekin diote aurtengo txapelketari. Dagoeneko hasiko ziren batzuk apus-

tuak egiten. Hona txapelketako lehen partiduetako emaitzak: Mikel Bargielak eta Jon Pagaldaik 18, Jose Mari Iturbek eta Jose Mari Mendizabalek 15; Juan Simon Aristik eta Jose Manuel Aranburuk 18, Jon Arregik eta Eneko Zabaletak 7; Andoitz Aranburuk eta Iker Irizarrek 18, Mikel Urtzelaik eta J. Agirrebeitiak 9; Mikel Mugurutzak eta Migel Mari Jauregik 18, Patri Bideluzek eta Andoni Balerdik 17.

Bihar, zapatua, joan den astean jokatu ez zuten bikoteak ikus-teko aukera izango da eta dagoeneko txapelketa hasi duten batzuk ere arituko dira. 09:15ean hasita lau pilota partidu izango dira pilotalekuan: Mikel Saralegi eta Josu Agirrezabal, Joseba Lezeta eta Juanjo Aranbururen aurka; Aitor Aranguren eta Felix Agirre, Erik Lizarralde eta Joseba Azkarateren aurka; Patri Bideluze eta Andoni Balerdi, Andoitz Aranburu eta Iker Irizarren aurka; eta, azkenik, Luis Larrea eta Jon Aranguren, Mikel Mugurutzak eta Migel Mari Jauregiren aurka arituko dira.



Iparragirre, Larrañaga, Urtzelai eta Biteri izan ziren iazko txapelketako finalista.

ARTXIBOA

HURRENGO PILOTA PARTIDUAK

AZAROAK 19, ZAPATUA

09:15, Mikel Saralegi eta Josu Agirrezabal - Joseba Lezeta eta Juanjo Aranburu

Ondoren, Aitor Aranguren eta Felix Agirre - Erik Lizarralde eta Joseba Azkarate

Ondoren, Patri Bideluze eta Andoni Balerdi - Andoitz Aranburu eta Iker Irizar

Ondoren, Luis Larrea eta Jon Aranguren - Mikel Mugurutzak eta Migel Mari Jauregi

BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

Iker Larrea lehen antzuolarra Behobian

U.A.

Iker Larrea izan genuen helmugara iristen lehena Behobia-Donostia lasterketa herrikoian. 01:09:03 behar izan zuen Larreak eta 68. postua lortu zuen. Mikel Larrañaga izan zen bigarren antzuolarra (01:14:37), 556. postua lortu zuen. Hirugarrena Mikel Montori izan zen, 1.175. helmugaratu zen (01:21:54).

GAINONTZKO KORRIKALARIAK

Hona gainontzeko korrikalarien denborak eta postuak: Jon Arre-

gi (01:24:03, 1.935); Luis Herzog (01:25:31, 1.935); Iñaki Legorburu (01:25:33, 1.940); Xabier Azkarate (01:25:34, 1.945); Mikel Etxaniz (01:26:05, 2.095); Gorka Garitano (01:29:26, 3.078); Oscar Velarde (01:30:01, 3.300); Imanol Garmendia (01:31:37, 3.793); Modesto Caceres (01:37:23, 5.570); Iñaki Arieta-leanizbeaskoa (01:40:02, 6.426); Jesus Lazaro Bellido (01:41:30, 6.816); Mikel Alberdi (01:44:48, 7.644); Aitor Sarasua (01:44:49, 7.648); Modesto Caceres (01:48:30, 8.478); eta Eneko Zabaleta (01:50:42, 8.909).



Goitik behera bustita iritsi ziren korrikalari guztiak Donostiako helmugara.

ASTELEHENEN GOIENKARIA

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 19

16:00: Antzuola-Ikasberri (2. erreg.)

PILOTA

Azaroak 18 (Gipuzkoako txap.)

19:30: Olalde-Aurrera Saiatz (Gazteak)

Ondoren: Olalde-Oiangu (Paletaz)

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Antzuola 2 (2. erreg.)

Antzuola 3 Sp. Herrera 1 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.

Olalde-Eibar (Infantilak) 18-11

Zazpi-Iturri-Olalde (Gazteak) . . . 22-14

Olalde-Aurrera Saiatz (Nagusiak) . 6-22

Olalde-Gazteleku (Paletaz) 26-25

**LEKY-BERRI
MERENDEROA**

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA



Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko azaroaren 18a / 246. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Zabor tasen igoera Mankomunitateko udal guztiek modu bateratuan egin dute; igoera %17,62koa da.

Udal zergen eta tasen igoera %3,7koa izango da

IRATI AGIRREAZALDEGI

Azken Ogasun batzordeko bilanordenantza fiskalen eguneratzeaz jardun zuten. Batzordeko kideek proposatu dute tasen igoera % 3,7 izatea, KPIren arabera igoera, hain zuzen ere. Zaborrei dagozkien zergek, ordea, %17,62 egingo dute gora.

Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) arabera zergen eta tasen igoera egitea proposatu du Ogasun batzordeak, %3,7koa, hain zuzen ere. Eta osoko bilkuran onartu egin dute igoera hori.

Udal zergek urtero egiten dute gora eta aurten ere horrela egitea izan da proposamena. Tasak eta zergak gaurkotzean 2004ko irailetik aurtengo irailera bitartean KPIk izan duen igoera hartu dute kontuan. Iaz igoera %3,2koa izan zen.

Ondasun higiezinaren kasuan, %3,7ko igoerari gehitu behar zaio Foru Aldundiak urtero egiten duen igoera. Balio katastralaren

%2.Guztira, zerga igoera %5,7koa litzateke. Horrenbestez, Elgetako etxe arrunt batengatik aurten gutxi gorabehera iaz baino zazpi euro gehiago ordaindu beharko dira zergetan.

Bestalde, Udalak %50eko hobariak emango dizkie eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatzen dituztenei; baina oraindik horrelako kasurik ez dago herrian. Hobari bera jasoko dute Bizigune programaren baitan hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeko lagatzen dituztenek. Udalaren arabera herrian 100etik gora dira hutsik dauden etxeak; baina horietatik heren

Herriko etxe arrunt bategatik iaz baino zazpi euro gehiago ordaindu beharko dira zergetan

bat asteburu eta oporraldietan erabiltzen dira.

Hobaria jasoko dute, era berean, baserrietako fatxadak berritzen dituztenek; edo berritze lan osoa egin ostean, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jasotzen dutenek. %90ekoa izango da hobari hori.

ZABORRAK

Jabetza publikoko tokiei erabilerari pribatua emategatik ere tasak ordaindu behar dira. Baita bestelako zerbitzu publikoen gatik eta jarduera administratiobonetatik ere.

Zerbitzu publikoen kasuan, iaz bezala aurten ere zaborren gaineko zergetan izango da igoera handiena: %17,62koa, hain zuzen ere. Tasen igoera Mankomunitateko udal guztiek modu bateratuan egin dute, zerbitzua erahala eskaintzen dutelako. Mankomunitatekoen esanetan, "zabor bilketak, garraioak eta zaborte-gian ezabatzeak kostu oso handia du"; beraz, horregatik dago horrenbesteko igoera tasetan.

ETXEBIZITZAK

Aralarren eskaria etxe hutsak erabiltzeko

I.A.

Udalan Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzearen alde lanean dihardu Aralarrek, eta etxebizitza hutsei irtenbidea topatzeko Udala Bizigune programan sartzea proposatu du. Bestalde, eskatu du babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko batzarra lehenbailehen egitea.

Udalak babestutako etxebizitzak bultzatzen ditu, baina "horretaz gain, herrian dauden etxebizitza hutsei irtenbidea eman behar die. Orain arte EAJ-EAk ez du etxebizitza hutsen gaineko proposamenik egin", Aralarren esanetan. Hori dela eta, Udalak etxebizitza hutsen erabilpena bultzatzen diharduen Bizigune programan parte hartzea proposatu du Aralarrek. Proposamena onartu egin zuen udalbatzarra joan zen egunean.

Etxea alokairuan ematen duena eta etxe bila dabilena harremanetan jartzen ditu programak.

Aralarrek proposatu du etxebizitza hutsen jabeek eta herritarrei programaren berri ematea eta urtea amaitu aurretik etxebizitza hutsak zenbat diren jakiteko azterketa egitea.

"Etxebizitza hutsak merkaturatzeak herritarren beharrei aurre egiten laguntzeaz gain, etxebizitza berrien prezioan eragin dezake", dio Aralarrek.

ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEA

Bestalde, etxebizitzaren gainean Aralarrek proposatu du etxebizitza zaharrak egokitzeko ordaindu beharreko tasari %90eko hobaria ipintzea.

Horrez gain, Aralarrek eskatu du babes ofizialeko etxebizitzaren egoera azaltzeko herritarrekin batzar bat egitea. Batzar horretan eraikuntza epeen, prezioen eta eskatzaileek bete beharreko baldintzen berri emateko eskatu dute. "Irailan egin genuen eskaria eta espero dugu batzarra azaroa bukatu aurretik egitea", dio Aralarrek.

LABUR

Jesus Mari Beristain eta Haritz Barrutia Behobia-Donostia lasterketan izan ziren

Domekan jokotutako Behobia-Donostia lasterketan 10.875 lagunek hartu zuten parte, tartean bi elgetarrek. Jesus Mari Beristain 1:25:42 denbora eginda 1.976. tokian heldu zen helmugara; Haritz Barrutia, berriz, 2.389. izan zen 1:27:08 denbora eginda.

Uribarri Ganboara mendi bizikleta ibilaldia antolatu dute domeka goizerako

Domekan, azaroaren 20an, mendi bizikleta ibilaldia izango da kirola sustatzeko taldeak antolatuta. Arlabandik abiatu, Uribarri Ganboara joan eta berriz Arlabanera itzuliko dira txirrindulariak. Hara autoetan joango dira, 09:30ean Elgetan irtenda.

'Lagundu! arrain bat naiz' eta 'Charada' filmak aste honetan Espaloian

Eguaztenean, azaroaren 23an, *Charada* filma emango dute Espaloian, 21:30ean. Cary Grant, Audrey Hepburn eta Walter Matthau dira aktoreak. Bestalde, domekan, hilaren 20an, umeendako *Lagundu! arrain bat naiz* filma izango da, 17:30ean.

ELKARRIZKETA

IDOIA LASA/MENDILANKOR KOOPERATIBA ELKARTEKO BAZKIDEA

“Gure ardurua nagusia da ondorengo belaunaldiendako egungo ondarea lagatzea”

I.A.

Mendilankor kooperatiba martxoan sortu zen eta Euskal Herriko ondareak gordetzea du xede. Kooperatibaren sortzaile eta bazkide da Elgetako Idoia Lasa eta hark azaldu dizkigu euren lanaren nondik norakoak eta enpresaren asmoak.

Zein da zuen kooperatibaren eginbehar nagusia?

Euskal Autonomia Erkidego-ko ondare natural eta kulturalaren berreskuratze eta mantentze-lanak egiten ditugu. Gure ardurua nagusia da ondorengo belaunaldiendako gaur egungo ondarea gordetzea eta ahal den neurrian ez desagertzea, jadanik zenbait gauza galdu ditugu-eta. Administrazioei, eskatuko nieke aurrekontuetako zatitxo bat bada ere lan horietarako erabiltzea.

Zein lan egiten duzue?

Bidezidorrak berreskuratzea gure jardueraren atal garrantzitsu bihurtu da. Beste bat bide horien seinaleztapena da. Horrekin batera, interpretazio mahaiak eta panelak ipintzea inguruak eskaintzen dituen aberastasunak kokatu, identifikatu eta interpretatzeko. Aisialdirako guneak

egokitzea da beste lan bat. Ondare kulturala berreskuratze lanak ere egiten ditugu (mendiko aterpeak, zubiak, iturriak, karoniak, elur zuloak...). Ingurumen hezkuntza; kirol eta aisialdi ekintzak; ibai, erreka, aintzira eta laku inguruen garbiketa eta argitalpen zerbitzuak (gidak, eskuliburuak...) ere eskaintzea da gure asmoa.

Nola bururatu zitzaizuen horrelako enpresa bat sortzea?

Hiru bazkide gara; eta mendi ingurua gustuko dugunez, beti izan dugu buruan horrelako zerbaitegitea. Iaz proiektua itxuratu eta Markinan enpresa proiektuen lehiaketa irabazita enpresa sortu genuen.

Orain arte zein lan egin duzue?

Txindokiko bidezidorra berreskuratzea (hasierako faseak); Berrizko bi ibilbideren mantentze-lana; eta Aralarren artzaintza.

“Pixkanaka administrazioak ingurumen politikak garatzen ari dira”

bide batzuen konponketa. Orain, Munitibartik Mendexara bitartean egiten ari diren Leako ibilbide berriaren zati batzuen arduradugu. Hemen inguruan oraindik ez dugu lanik egin, ezta eskaririk jaso ere, baina gustura egingo genuke.

Euskal Herrian badago horrelako beste enpresarik?

Guk eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak ematen dituen enpresarik ez da; baina esparru bakoitzean espezializatutakoak bai, eta lehiakortasun horrek zaildu egiten du gure lana.

Zein dira zuen bezeroak?

Administrazioa, udalak, mankomunitateak, garapen agentziak, fundazioak, mendi federazioak... Konzienziazio lana beharrezkoa da. Pixkanaka administrazioak ingurumen politikak garatzen ari dira, baina asko dago egiteko.

Hemendik aurrera zein helburu ditu kooperatibak?

Egindako lanen bidez enpresa ezagutzera ematea; jende gehiago sartzea; eta esparru guztiak lantzea; orain gaudenok ezin gara toki guztietara heldu.

Elgetan zein lan egingo zenuke?

Antzinako sorbideak berreskuratzea eta aisialdi guneak egokituko nituzke, Asentzio esaterako.



I.A.

KIROLA

Kirol arloko boluntarioendako ikastaroa izango da abenduan

I.A.

Elgetako Udaleko Kirol Zerbitzuak, Debagoieneko Mankomunitatearen laguntzarekin, kirol arloko boluntarioendako ikastaroa antolatu du. Kirol arloa gustuko dutenei eta boluntario izateko prest daudenei dei egin diete. Eskolak abenduan izango dira.

Kirolarekin eta lan boluntarioarekin zerikusia duten hainbat gai landuko dituzte ikastaroan: borondatezko lana eta kirol erakundeak, kirol erakundeen dinamika, boluntarioen lan baldintzak, eskubideak eta betebeharrak eta borondatezko lana kirol erakundeetan.

Eskolak abenduaren 1ean eta 15ean izango dira, 18:30etik 22:00era bitartean. Baskonia Fundazioko Juan Jose Seoane izan-



I.A.

Kirol arloko boluntarioen lan baldintzez jardungo dute, besteak beste.

go da irakaslea, eta eskolak gaztelaniaz emango ditu.

Ikastarorako izena emateko azaroaren 29a baino lehen joko behar da udaletxera, Kirol Zer-

bitzura. Telefonoz (943 76 80 22) zein e-posta bidez (kirola@elgeta.net) ere egin daiteke eskaria. Ikastaroan parte hartzeko sei euro ordaindu behar dira.

KULTURA

Gaur jazz emanaldi didaktikoa Espaloian

I.A.

Udalak eta Kutxak antolatuta jazz kontzertu didaktikoa izango da gaur, barikua, Espaloian, 22:30ean. Jazzaren historia laburbilduko du zortzi musikariek osatutako Pirineos Jazz Orchestra taldeak, *Tamtametik tom-tomera* izenburuko ikuskizunean.

Musikari itsu baten bidez jazzaren bilakaera deskribatuko dute ikuskizunean, historia, antropologia, geografia, kulturen eta arrazen arteko topaketa... uztartuta.

Pirineos Jazz Orkestrako musikariek hainbat garai eta estilotan barrena ibilaldia egingo dute: work songs, ragtime eta spirituals, rock-and-rolla, bebop eta free jazz, swing eta dixieland... Jazzaren historia bizi-arazita eta musika-genero horrek gaur egun-

go musika moldeetan izan duen eragina erakutsita.

IRUDIAK

Ikus-entzunezko muntaia baten bidez irudiak proiektatuko dituzte. Hain zuzen ere, Europa, Afrika eta Amerikako testuinguru geografiko, historiko eta sozialaren alderdi garrantzitsuenak islatuko dira.

Kontzertuak kutsu didaktikoa izango badu ere, edozein adinetako jendearendako da egokia. Antolatzaileen esanetan, “iraganen gertatutako eta gaur egun gertatzen ari den kulturen arteko nahasketa hobeto ulertzeko baliagarria gertatuko zaigu”.

Ordubeteko emanaldian zortzi musikariek jardungo dute: bateria, teklatu, gitarra, kontrabaxu, saxo eta tronpetarekin, ahotsari lagunduz. Zuzendari lanak Mikel Anduezak egingo ditu.

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko azaroaren 18a / 27. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: 55482/05

Erretiratuaren antzezlanak kanpoan ere ikusiko dute

OIHANA ELORTZA

Pake Lekuko antzerki taldeko aktoreek Ordizian, Legazpin eta Zumarragan egingo dute antzezlanak. Oñatin ere izugarritzko arrakasta izan zuen, eta jendearen eskaerari erantzuteko, datorren egubakoitzean, azaroaren 25ean, berriro eskainiko dute Santa Anan.

Pake Lekuko antzerki taldearen *Estoy harta* antzezlan komikoak izugarritzko arrakasta izan du, eta gonbidapena jaso dute beste herri batzuetatik antzerkia egiteko. Adibidez, datorren abenduaren 19an Ordiziako erretiratuaren etxean aurkeztuko dute antzezlanak eta 2006. urtearen hasieran Legazpira eta Zumarragara ere joango dira Pake Lekuko aktoreak.

OÑATIN AZAROAREN 25EAN

Lehen emanaldia herriko erretiratuendako egin zuten, baina oso harrera ona izan zuen, eta jendeak eskatuta, herri osoari zuzendutako emanaldia egingo dute datorren astean. Azaroaren 25ean izango da, Santa Anan, 21:00etan. Hiru euro balio du sarrerak. Ohol-



Zazpi emakumek osatzen dute Pake Lekuko antzerki taldea.

tza gainean izango dira: Asun Artzuaga, Rosita Lukas, Ana Mari Lizeaga, Mari Karmen Goitia, Ana Mari Chacon, Karmentxu Maiztegi eta Tere Zubia.

Bestalde, datorren eguaztenean, Ordizia eta Oñatiko erretiratuaren abesbatzek kontzertua eskainiko dute Santa Ana antzokian iluntzeko zazpietan.

KONTZEIUPETIK



Paisaia berria herriko plazan

Plazan urtetan egon den litxarkerien kioskoa kendu egin dute. Hantxe lanean ibili diren senar-emazteek erretiroa hartu dute. Beste inork ez du interesik erakutsi negozio horrekin jarraitzeko, eta Udala aztertzen ari da orain toki horretan zer egin. Informazio puntu bat jartzea, eskultura bat ipintzea edo pasoa errazteko toki libre uztea dira Udala aztertzen ari den aukera batzuk. Oraindik, ordea, ez du erabaki zer egin toki horretan. Plazaren itxura beste bat da orain. /O.E.

BERTSOLARI TXAPELKETA

Finalerako txartelak ditu Bertso Eskolak

O.E.

Datorren abenduaren 18an da Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusia, BECen, eta Oñatiko Bertso Eskolak autobuserako, bazkarirako eta finalerako txartelak jarri ditu salgai Euskal Herriko Bertsozale Elkartearekin batera. Eskaintzen ditu hiru txartel, eta horiek Laixan euskara elkartearen egoitzan daude sal-

gai dagoeneko, eta hauexek dira prezioak: autobuseren txartelak 12 euro balio du, finaleko saioaren sarrerak 25 euro eta bazkarirako joatekoak 18 euro. Banan banan dituzte txartelak. Bertsozale Elkartearen bazkideak direnek elkartearen bertan eskatu behar dituzte sarrerak; Laixan daudenak bazkide ez direnendako dira. Autobusa 08:30ean irtengo da posta etxetik, abenduaren 18an.



Sustrai Colina eta Aitor Mendiluze Gasteizko saioan.

LABUR

Haurrendako antzerki musikala dago domeka arratsaldean Santa Ana antzokian

Hika antzerki taldeak antzeztutako haurrendako antzerki musikala eskainiko dute domekan arratsaldean, 17:00etan, Santa Anan. *Groau* da ikuskizunaren izenburua eta katu baten gorabeherak kontatzen ditu. Katu horrek *groau* egiten du *miau* egin beharrean, eta baztertuta sentitzen da. Ezberdin sentitzeari buruzko hausnarketa egiten du Hikak antzezlan umoretsu horretan. Sarrerak salgai daude kultura etxean 2,50 eurotan; leihatilan, berriz, 3 euro.

Dolores Billarri tokatu zaizkio Zurigorri taldearen San Mameserako bi sarrerak

Oñatiko Zurigorri Taldeak bi sarrera zozketatzen ditu bazkideen artean Athletic taldeak San Mamesen jokatzen duen ligako partidua bakoitzerako. Azken sarrerak Dolores Billarri tokatu zaizkio eta gura duenarekin joango da San Mamesera Alaves taldearen aurkako partidua ikustera. Zurigorri taldeak Antton tabernan du egoitza eta hantxe egoten dira kideak martitzenetan.



AZKARATE
aroztegia



Arotz lanetan behar duzun guztia



- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak



Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020 • www.goiena.net/blogak/azkarate

albaitaritza klinika
Unai San Vicente



Ile apaindegi zerbitzua daukagu

Labeaga 33B behea

Urretxu

Tel.: (24 ordu) 943036304

www.usavak.net



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 izar" garrenko kalifikazioa pertsona nagusien babeserak.

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatuzeko.

www.nuevozafira.com.es

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

Giauto

Olaso 25. Elgoibar
Otaola etorbidea 29. Eibar
Olabarrena auzoa z/g. Bergara
San Andres auzoa 10D. Arrasate
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

GMAC FINANCIAL SERVICES